

Roberto Uribeetxeberria, Artemis Industry Association-eko kidea

2014/03/24

Artemis Industry Association elkarteko Zuzendaritza Kontseiluak Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko ikertzailea den Roberto Uribeetxeberria izendatu du erakundeko kide izateko. Horrenbestez, data horretatik aurrera, ARTEMIS-IAko lehendakariordea da, webgune honetan ikus daitekeen bezala: <http://www.artemis-ia.eu/presidium>

Aurten, Artemis Industry Associationek ARTEMIS SPRING EVENT antolatu du seigarrenetik, eta martxoaren 18an eta 19an gauzatu da, Amsterdameko Crowne Plaza Hotelean. Oso aukera baliagarria izan zen industriaren ezagutza eta I+G zentroentzat, baita lehenengo urratsa egin eta etorkizuneko aukerak esploratzen hasteko ere, ECSEL-JU izenarekin.

Artemis Europako komunitate jasankor eta iraunkor moduan eratu da, bere lantaldeen jardueretan babestuta, izan ere, Artemisek horien ezaugarriak baloratu dituela erakutsi du. Bere jardueren emaitza gisa, Artemisek Berrikuntzaren Bikaintasun Zentroak garatu ditu (CdE), Normalizazio Programa bat, Programako metrikak eta Erreminten Plataformetarako etiketa bat. Elementu horiek guztiak oso garrantzitsuak dira komunitate sendo bat eratzeko, eta, ondorioz, Artemis finantzatzeko programa bat baino zerbait gehiago da. ARTEMIS SPRING EVENT 2014 ekitaldian zehar, Lantaldearen bilerak zabalik egon ziren parte hartzaile guztientzat.



Roberto Uribeetxeberria